

## **XIX GAZTE ASTEAREN KARTEL LEHIAKETA.**

Azken urteetan egin ohi izan dugun bezala, "**Gazte Astea**" antolatu nahian gabilta. Honetarako **zuen partaidetza** ezinbestekoa izango dugu.

Gazte Astea antolatzeko Gabon opor garaia aprobetxatuko dugu, jai egun bereziak utziz beste egunetan ekintza ezberdinak antolatuz. Hau da; **ABENDUAREN 28, 29 eta 30, URTARRILAREN 4, eta 5**, egunetan.

Gazte Astearen lehen ekintza proposamen gisa **KARTEL LEHIAKETA** aurkezten dizugu. Hemen dituzu bertan parte hartzeko betebeharreko oinarriak.

### OINARRIAK

- + **Partehartzaileak**; 12-17 urte bitarteko gazteek parte har dezakete (DBH1-DBH4 ikasleak)
- + **Gaia**: "**Artxamendi Gazte Topalekua**" (-----gaia zehaztu).
- + **Formatoa**; Diseinuek DIN-4 orri baten erdia izango da, luzetaka hartuta. 29zm x 10 zm. Neurria izan behar du orriak. Marraskia bertikalean egin beharko da, goitik behera alegia. Lanak txuri beltzean, nahiz koloretan eginak eta paperean, Cdan, edo pen-driven aurkeztu daitezke. Lana egilearen datu pertsonalak, ikastetxea eta ikas maila atzean jartzen dituela aurkeztuko da, Gazte Zerbitzu Bulegoan (GZB).
- + **Non eta Noiz aurkeztu**; Lana egileak aurkeztu dezake edo helbide honetara igorri dezake; Gazte Informazio Bulegoa, Aita Madinabeitia z/g, Elkargune eraikina. **Lanak aurkezteko epea**; **2020ko azaroak 27** (Ordutegia; Astelehenetik ostiralera, 16:30etatik 20:00etara). Azkoitiko Udalak ez du bere gain hartzen diseinuak bidean galdu edo hausturaren ardura.
- + **Epaimahaia**; Azkoitiko Udaleko Gazteria Teknikaria, eta Gazte Zerbitzu Bulegoko arduraduna.
- + **Sariak**;

Kategori bakarra: DBH1etik DBH4ra; 80€ko eroste txartel bat. Sari horrez gain Gazte Asteako kartel eta eskuorriaren azala gisa erabiliko da.

- Eroste txartel hauek kirol arropa edo tresnetaz trukatzeko izango dira.